# jokulariak 135

EUSKAL AKTOREEN BATASUNAREN BOLETINA
BOLETÍN UNIÓN DE ACTORES Y ACTRICES VASCAS
udazkena 2024 otoño

ESPAÑA
FRANQUEO CONCERTADO
Publicaciones Periódicas

# BESARKADEN BULTZADA




AISGE
es lo tuyo
Si eres actor o actriz audiovisual,
¡HAZTE SOCIO!
No te costará nada,
Te beneficiarás de nuestra labor asistencial y formativa
Y recibirás los derechos que te corresponden
aisge
www.aisge.es
Tel. 943 271 599




135

udazkena
otoño
2024
**Azala** Marrazkia
IA eta Jon Koldo Vázquez


06






08



18

# jokulariak

EAB Euskal Aktoreen Batasuna


EUSKAL AKTOREEN
BATASUNAREN BERRIPAPERA

DONOSTIA
Portuetxe nº 23 A
4º Planta ofic. 4/08
20.018 Donostia
Tel. 943 31 48 22

BILBAO
Bilbaoeszena
c/ Juan de Gardeazabal 3
(entrada por c/Fica)
BILBAO 48.004
Tel. 944 33 37 86

eabdonostia@euskalaktoreak.eus
eabbilbao@euskalaktoreak.eus
www.euskalaktoreak.eus



**Koordinazioa eta edizioa**
Jon Koldo Vázquez
**Testuen zuzenketak**
Uzuri Guridi, Rakel Ezpeleta

**Maketazioa, diseinua**
I. Z.
**Inprimategia**
Antza
LG/DLSS168/2000


Gogoratu aldizkari hau denona dela eta gustura hartuko genituzkela zure iritzi eta artikuluak.
Recordad que esta revista es de todas y todos, y que gustosamente recibiremos tus opiniones y artículos.

# AURKIBIDE


04 **EDITORIALA**

06 **#SSIFF2024**
Alizia Otxoa, Rakel Ezpeleta

08 **BESARKADA SARIAK 2024**
**Zuzendariak, aurkezleak, izendatuak**

18 **EGINDAKO IKASTAROAK**
**Técnica Meisner con Javier Galitó-Cava y Neus Sañé**
Marijo Benitez, Laura Iturregi

Editoriala

# GURE SARIAK

Iraila beti izan da hilabete berezia aktoreentzat. Antzerki denboraldi berriko estreinaldien entseguen hasiera edo amaierak jasaten dituen hilabetea da. Telesail berriak eta denboraldi berriak abian jartzen dira plataforma digitaletan. Eta Zinemaldia ospatzen da, aurten hainbat berritasunekin.

Esku artean duzuen 135. alea Zinemaldiarekin hain zuzen hasiko dugu, zuzendaritza batzordeko bi kideen idatziekin. Alizia Otxoak EAB eta Zinemaldiaren artean eraikitako ekimen berri bat aurkezten digu: aktorearen lanbideari lotuta dauden intereseko gaiei buruz iharduteko mahai-inguru bat, gogoeta egin eta etorkizunean errepikatzeko asmoarekin jaio den ideia. Eta bestalde, Rakel Ezpeletak EITBk antolatzen duen Euskal Zinemaren gala berriaren xehetasunak azaltzen dizkigu, EABren partehartze berezia barne.

Eta Zinemaldia amaitu bezain azkar, galdu ezin dugun hitzordu bat: Besarkada Sariak urriaren 2an, arratsaldeko 19:30etan, Bilboko Campos Eliseosen ospatuko dira. Aurtengoa sarien hogeigarren edizioa da eta ale honen zati haundi bat beraiei eskeiniz ospatu nahi dugu.

Hodei Arrastoa eta Kepa Errasti, galaren zuzendari eta gidoilarien idatzi bat daukazue bertan. Eta, honen ondoren, aurtengo galako aurkezleak nortzuk diren ezagutu ahalko duzue. Kategoria bakoitzean izendatua izan den aktoreari buruz aritzeko haien lankide batengana jo dugu. Lankide batzuek idatziak bidali dizkigute, eta beste batzuekin telefonoz aritu gara: Sofia Otero, Malcon Teviño-Sitté…

Javier Galitó-Cava eta Neus Suñeren eskutik Bilbon izan genuen Teknika Meisner formakuntzari ere tarte bat eskeini diogu aldizkarian. Laura Iturregi eta Marijo Benitezen idatziek, kurtsoan parte hartu zutenen sentsazio politak jasotzen dituzte.

Irakurtzen gozatzea espero dugu. Zinemaldian eta, batez ere, Besarka Sarien banaketan elkar ikusiko dugulakoan, laister arte!

# **NUESTROS** PREMIOS

Septiembre siempre ha sido especial para las actrices y actores vascos. Es un mes donde comienzan o se ultiman los ensayos para los estrenos teatrales de la nueva temporada. En las plataformas digitales se lanzan nuevas series o comienzan las nuevas temporadas. Y en el apartado cinematográfico se celebra el Zinemaldia, que este año viene con novedades.
Comenzamos este número 135 de Jokulariak con una sección dedicada al festival, escrita por dos de nuestras junteras. Alizia Otxoa presenta una nueva iniciativa, creada mano a mano entre EAB y el propio Zinemaldia: una mesa redonda en la que se tratarán temas de interés para nuestra profesión, una jornada de reflexión que nace con la idea de repetirse en un futuro. Por otra parte, Rakel Ezpeleta es quien da los detalles de la nueva Gala del Cine Vasco que organiza ETB, donde EAB tendrá una participación muy especial.
Y poco después de finalizar el festival tenemos una cita ineludible: los premios Besarkada que se entregarán el 2 de octubre a las 19:30 en el teatro Campos Elíseos de Bilbao. Este año es la vigésima edición de los premios y lo celebramos dedicándole el mayor espacio de la revista a nuestro evento. Comenzamos con un texto de los directores y guionistas de la gala: Hodei Arrastoa y Kepa Errasti. A continuación, descubriréis quiénes son los presentadores de esta edición. Para escribir en torno a las personas nominadas de cada categoría, hemos acudido a compañeras y compañeros que han trabajado en el mismo proyecto que ell@s. Algunas de esas personas han escrito un breve texto y con otras hemos conversado por teléfono para redactarlo, como es el caso de Sofía Otero o Malcon Teviño-Sitté.
Y como esto va de celebraciones, qué mayor premio que acudir a un taller monográfico y finalizarlo con una gran satisfacción personal. En las últimas páginas de Jokulariak nos hacemos eco del curso sobre técnica Meisner impartido por Javier Galito-Cava y Neus Suñé en Bilbao. Laura Iturregi y Marijo Benitez son las encargadas de trasladar el buen sabor de boca que quedó entre las y los participantes.
Esperamos que disfrutéis de la lectura. Nos vemos en el Zinemaldia y sobre todo, en la gala de entrega de los Premios Besarkada. Ointxe arte!

#SSIFF2024






# **GLAMOURRAREN** ATZEAN

Iraila iritsi da eta berarekin Zinemaldia. Jose Luis Rebordinosekin izandako bileretan, aktoreon ikusgarritasuna handitzeko kolaborazio proposamenak egin dizkiogu.
Aukera ezberdinak planteatu ondoren, mahai-inguru bat antolatzea adostu dugu: Glamourraren atzean: aktoreok kontratazio eredu berrien aurrean. Follower kantitateari begira, influencerren agerpena edota aktore naturalak bilatzea, IAren eragina ahaztu gabe.
Hau idazteko momentuan ez ditugu izen guztiak, baina bai nola antolatuko dugun. Batetik, mahai “tekniko” bat non abokatu bat, casting zuzendari bat, aktore bat eta errepresentante bat egongo diren. Bestetik, 0 lerro bat, aktorez osatuta. Galderak egin ditzaten, haien esperientziak azaldu… Batean eta bestean bertako eta kanpoko profesionalak elkartuz.
Tabakaleran izango da, Z aretoan, Irailak 20an. Oraindik ez dakigu zenbat gonbidapen izango dugun, baina atetxo bat ireki dugula iruditzen zaigu eta, oso gaizki ez bada ateratzen, etorkizunerako inbertsioa izan daiteke.
Azkenik, egun horretan etortzeko aukera edo gogorik izango ez bazenute, badago parte hartzeko beste aukera bat, Sare Sozialak: Glamourraren atzean, #DetrásDelGlamour, #BehindTheGlamour erabili zuen iritziak eta esperientziak partekatzeko.
Zinemaldian ikusiko dugu elkar!
**Alizia Otxoa**




# BULTZADA SARIA
# EUSKAL ZINEMAREN GALA BERRITZEKO

Aurtengoa, EAB eta euskal zinemaren arteko erlazioa berri zoriontsuz bete duen urtea da, bereziki, Zinemaldiarekin ditugun harremanak. Artikulu honetan, zehazki, Euskal Zinemaren Galan ikusi ahalko diren berrikuntzei buruz arituko gara.

Dakizuenez, urtero EITBk euskal zinemaren gala antolatzen du SSIFF-Zinemaldiaren barne. Bertan, Zinemira saria banatzen da, eta, ondoren, estreinaldiko euskal film bat proiektatzen da. Aurten, berriz, EITBko zuzendaritza talde berriak tokiko zinemaren aldeko apustua egin du, eta, Zinemaldiaren babesle ofizial bihurtzeaz gain, euskal zinemari eskainitzen zaion gala berritu du, forma eta kontzeptu aldetik. Helburuak: sektoreko profesionalen presentzia eta inplikazio handiagoa, eta distira eta publiko gehiago izatea, bai zuzenean, bai telebistan. Hori lortzeko baliabideak: gala ordubetekoa izango da gutxi gorabehera (lehen 30 minutukoa zen gehienez), baina ez da film proiekziorik egongo; eskarmentua duen ekoizle bati emango zaio ekoizpen lana, lehiaketa bidez (2024an El Terrat-ek prestatuko du, K2000ren lankidetza exekutiboarekin); ikusgarritasun handiagoa izango du, zuzeneko musika, aurpegi ezagunak, prestaketa eta entsegu zabalagoak, alfonbra gorriaren nagusitasuna... Eta, garrantzitsuena, sari gehiago banatuko dira euskal zinemarekin lotutako sektore profesionalak ordezkatzen dituzten erakundeen izenean.

Horrela, galaren barruan, Zinemaldiak berak euskal esparruko ibilbide profesionalari ematen dion Zinemira sariaz gain, EITBk egile berriei beste sari bat emango die; EZAEk GZ! Plataformak Gure Zinema saria emango dio aretoetan diru gehien biltzen duen euskal filmari; GIDOI Euskal Herriko Gidoigileen Elkarte Profesionalak urtero gidoi onenari banatzen duen saria galaren baitan emango du; eta EABk Bultzada sari berria emango du.

Eta, zer da Bultzada saria?

Euskal zinemako aktoreei emango zaien saria da, zinemako ohiko sari eta palmaresetara iristeko zailtasun gehiago dutenei emango zaiena, bai ekoizpen arriskutsuagoak edo hedapen txikiagokoak direlako, bai aktore hasiberrienak direlako edo zinema esparruan ezagutzera ematen ari direlako (adin-iragazkirik gabe), bai euskara hutsean egindako lanak direlako. EABren Bultzada sariak bultzadatxoa eta ikusgarritasuna eman nahi die aintzezpen gutxiko lanei.

Bultzada sariak ez du ez genero ez adin bereizketarik, eta Euskal Herri osoko aktoreentzat da (urtean bertako zineman egin duten lanagatik). EABn sortu dugu aurten urtero banatzeko asmoarekin, Zinemaldiko Euskal Zinemaren Galaren bidez gure zinemari lotuta geratu dadin.

**Rakel Ezpeleta**

# BESARKADA SARIAK 2024

Urriak 2 de octubre, 19:30
Teatro Campos Elíseos Antzokia, Bilbao

*Abrimos la sección dedicada a nuestra gala de entrega de premios que nos ocupará el grueso de la revista. Comenzamos con sus directores y guionistas, continuamos con las presentadoras y finalizamos con las nominaciones en las categorías de teatro, televisión y cine. El resto de premios se anunciará más adelante o los descubriréis en la propia gala. Solamente por eso, merece la pena que acudáis. ¡Anoten la fecha en sus agendas!*

# ZUZENDARIAK





Aurten Besarkada Sariek XX urte beteko dituzte. Euskal Aktoreen Batasunak sari banaketaren gala gidatzeko eta zuzentzeko deialdia ireki zuenean, elkarrekin aurkeztea erabaki genuen, bakarrik erreparu edo beldur moduko bat ematen zigulako bioi ala bioi. Ez da erronka makala… Zer, eta sari banaketa gala baten ardura hartzea!!
Sariak beti dira arraroak; beti dira injustuak. Zergatik aktore hau, eta ez beste hau? Zerk egiten du norbait garikur baten merezidun? Lan "onena" saritzeak suposatzen duen kontraesan guztiak geure gain hartuta, iruditzen zitzaigun garrantzitsua zela sektoreari ikusgarritasun eta batasun pixka bat ematen dion ekintza hau burutu eta jai giroan ospatzea. Azken finean horixe da Besarkada Sarien gala: jai bat. Eta horrela bizi nahi dugu guk ere.
Hori guztia buruan eta galari ze norabide eman pentsatzen, gehiengoarentzat hain ezagun ez diren afiliatuei protagonismoa ematea interesgarria izango litzatekeela iruditu zitzaigun, eta horren harira sortu dugu aurtengo ekitaldirako gidoia. Aurten EABk egunero sare sozialetan afiliatu bat jartzeko egitasmoa abian jarri zuenetik, konturatu gara guk geuk afiliatu asko eta asko ez ditugula ezagutzen. Horrek, gainera, ez du esan nahi beti langabezian daudenik: kasu batzuetan agian ohikoak ez diren edo publiko zabalago batentzat ezezagunak diren proiektu edo zirkuitutan mugitzen dira. Egia da ikusgarritasun gutxiago dutenez, eta sariok afiliatuen artean egiten den bozketa bidez banatzen direnez, aipatutako hauek aukera gutxiago dituztela hau bezalako galetan protagonista izateko. Hori justua da? Jendeak bere bozkatzeko irizpideak aldatu beharko lituzke? Sariak beraiek banatzeko irizpideak aldatu beharko lirateke? Guk ez daukagu erantzunik. Momentuz esku artean daukagunarekin aurrera egitea besterik ez zitzaigun geratzen, baina polita iruditzen zitzaigun, era berean, galdera hauek agertokian jartzea. Umoretik, baina beti ere errespetuz. Horretarako modurik onena norberak bere buruari barre egitea da, eta horretan saiatu gara.
Ez dugu gauza handirik aurreratuko baina gizon bat eta lau emakume puskaren talentuaz eta lanaz gozatzeko aukera izango dugu urriaren 2ko ikuskizunean. Denetik egingo dute: barre, negar, haserretu, dantza, kantatu, korrika egin, musukatu, zaldian ibili, apikultura… Oraindik ez ditugu entseguak hasi, baina guk gala idazten, eta aktoreek irakurtzen egin dituzten barreen erdiak publikoari kutsatzatzerakin, konforme geratuko ginateke. Hauek ez dira Oscarrak… ez dira Tonyak edo Emmyak; Besarkada sariak dira. Izen egokia iruditzen zaigu. Hori bai, besarkadak zintzoak izan daitezke… edo gutxien espero duzunean, bizkarrean aiztokada bat sartzen dizuten horietakoak….
Eta "Un, dos, tres" programa ezagunean esaten zuten moduan "Hasta ahí podemos leer…".
**Hodei Arrastoa, Kepa Errasti**

# AURKEZLEAK

## ALAZNE ASTORGA
Bilbao, 1998

Alazne Astorga es una de las actrices más jóvenes de nuestra afiliación. Ha formado parte de la Compañía Joven de Pabellón 6 en dos ocasiones y ha protagonizado cortometrajes como *Politta* o *Bat*. También ha trabajado con Traspasos Kultur en la obra *Hitzez Kolpe* y acaba de grabar el cortometraje *Uxina*, dirigido por Lucía Ezker. También ha realizado web-series como *Trucos y recetas, Larrugorritan* o *The Cell: Euskadi*.
Alazne sigue formándose y participando en monográficos de interpretación como los encuentros de Artedrama en Aulesti o el curso sobre técnica Meisner organizado por EAB.





## IMA KOIOTE
Zestoa, 1966

La interpretación formaba parte de las actividades de ocio de Ima y, tras nueve años acudiendo a los talleres impartidos por Amancay Gaztañaga, decidió profundizar más y este mismo año ha finalizado los estudios de Arte Dramático en el TAE de Donosti. Ha participado en los cortometrajes *Korosagasti* de Asier Susaeta y *Ospel* de Xanti Rodriguez, llegando a protagonizar *Murkoa* de Aitor Abio en 2021.
Ima sigue formándose, con Kike Jauregi en doblaje y la presentación de la gala de este año será uno de sus primeros trabajos remunerados.

## XANTI KORKOSTEGI

Donostia, 2002

Xanti es otro de los actores más jóvenes de nuestra afiliación, conocido por el personaje de Igor Altuna en la serie *Go!azen* y premio revelación en los Besarkada 2022.
Tras varios años en cursos infantiles de interpretación y coros, unió los dos ámbitos artísticos y siguió con su formación en el grupo de teatro amateur Gaztetxo Antzerki Eskola, donde participó en distintos musicales durante seis años.
Estudió Comunicación y Tecnologías para la comunicación audiovisual y multimedia, mientras realizaba trabajos como actor, cantante y presentador, destacando como uno de los protagonistas del musical *Kutsidazu bidea, Ixabel*, obra ganadora del Premio Max a Mejor Espectáculo Musical o Lírico en la edición de 2021.





## MIRENA NAFARRATE

Gasteiz, 1993

Mirena finalizó en 2016 sus estudios de arte dramático en el Institut del Teatre de Barcelona. Posteriormente ha seguido formándose en diferentes técnicas de interpretación: Meisner, viewpoints, biomecánica…
Sus inicios sobre las tablas los dio de la mano de la compañía Ortzai y ha participado en seis montajes del IT teatre, un proyecto de profesionalización dirigido a estudiantes que han finalizado la carrera en el Institut y que la ha llevado a trabajar con directores como Carles Santos, Jordi Oriol y Roger Bernat, en una producción junto al Teatre Nacional de Catalunya.
En el apartado audiovisual ha formado parte del reparto de varios cortometrajes y en películas como *Irati*.

## JAIONE URTASUN

Iruña, 1988

Jaione estudió Arte Dramático en La Escuela de Teatro de Navarra de 2008 a 2011. Posteriormente ha cursado monográficos de interpretación impartidos por directores de escena como Ander Lipus o Alfredo Sanzol.
En 2011 creó La Piel Producciones junto a Markos Goikolea, Xabier Flamarique y Fermín Cariñena. Bajo ese sello han levantado obras de teatro como *Beren izenez, Ura* o *Liberarse, reflexiones de armario*. También han producido spots y cortometrajes.
Ha participado en el film *Los últimos románticos* y lleva trabajando en televisión cuatro años, pero tal vez su cara no se os haga conocida porque ella es una de las titiriteras del programa infantil *Ene Kantak*, que estrenará versión teatral el año que viene, dirigida por ella misma.



# IZENDATUAK
## Antzerkia







### OLATZ GANBOA
*Festen*

Conocí a Olatz hace 17 años. Estudiamos juntos Arte Dramático y creamos, junto a otros compañeros, nuestra propia compañía de teatro. Podríamos decir que fue mi primera compañera de escenario.
A lo largo de los años la he visto crecer con talento, entrega y sentido del humor.
Trabajar a su lado es fácil y enriquecedor. No habría podido tener mejor partenaire en *Festen*. Ella hace que las cosas fluyan y que la función sea mejor. Se entrega al máximo. Me alegro muchísimo por su nominación.
**Lander Otaola**

### AITZIBER GARMENDIA
*Esnearen kolorekoa*

Aitziber aspalditik maite eta miresten det, baina berarekin oholtza konpartitu eta gero hare gehiago. Bera ez da konsziente Maryren bidaia egiten zuen bakoitzean ni publikoaren parte izango banintz bezela, egunero egunero hunkiarazten ninduela; Oso gutxik dute kapazidadea malkoa erortzen ari zaizun bitartean irribarre eginarazteko. Baina hori bezain garrantzitsua iruditzen zait, Aitziberrekin lan egitea zer den deskribatu behar badet, estenatoki atzean harekin bota ditudan momentu zoragarri guztiak gogoratzea. Dantza, katxondeoa, besarkadak, ikasketa eta maitasun asko. Hori da aitziber neretzat :)
**Miren Arrieta**

### GARBIÑE INTXAUSTI
*Forever*

Garbiñe interpreta en *Forever* a “La Madre” (La Joven y La Madura) y al “Hijo” (en su primera etapa).
Garbiñe es una actriz admirable, hay que destacar la increíble imaginación y desbordante sensibilidad con la que crea sus personajes. A estas dos virtudes, hay que sumar la envidiable precisión de una músico y su prodigiosa organicidad a la hora de interpretarlos. Sus personajes están repletos de ternura, de comicidad, de vulnerabilidad, y de determinación, en una palabra: de vida. Son capaces de protagonizar el momento más cómico de la obra pero también, el más emotivo.
Como compañera, dentro y fuera de escena Garbiñe es un regalo. Es el alma matter de Kulunka y nos invita, cada día, a soñar muy alto con ella, sin límites como su virtuosismo.
**José Dault**







## IÑIGO ARANBURU
*Ez naiz inoiz Dublinen egon*

Iñigo eta biok ikuskizun honetan ezagutu dugu elkar. Egia da nik aurretik hainbat lanetan ikusia nuela. Zineman batez ere. Baina entsaiotan hasi ginenean ikusi nuen eszenatoki gainean lehenengo aldiz, eta politta izan da Iñigo gure komedia honetan aitaren rolean ezagutu izana. "Iñaki" deitzen diogu eta berak, noski, erantzun! Eszenatokira atera aurretik bezala: beti maitasunez gerturatzen da kamerinora ezkontzako eraztunaren bila edo laka potea hartzera, "4 hile xixtrin horiek orrazteko" asmoz.
Eta nola ez, maitasunez ari da Aitziberren eta Azpitarteren eszena noiz amaitzen den zai gaudenean, gu ere oholtzara ateratzeko, berarentzat Stanislavski metodoa baino garrantzitsuagoa den teknikaz baliatzen denean, hau da: ogi barra osoa jaten duenean.
Beno, ba honengatik guztiagatik eta hemen kontatuko ez ditudan beste gauza mordoagatik, plazer bat eszenatokia zurekin konpartitzea eta guk ere maite zaitugu. Zorionak, Iñaki! (Positivo-positivo!)
**Begoña** (Mireia Gabilondo)

## AITOR BOROBIA
*Festen*

Aitor Borobia es Jon en *Festen*. Un personaje de mil capas, lleno de aristas, contradicciones… un hombre deshecho por los abusos sexuales que sufrió de pequeño. Asomarse a los fantasmas de Jon es un salto al vacío.
Cuando pienso en Aitor Borobia pienso en la palabra "compañero". En alguien capaz de transformar el trabajo en juego, la tensión en chiste, un mal pase en cinco rondas de cañas. Porque aunque tenga la espalda cansada de teatro, su corazón sigue latiendo por él. Y porque además de un gran actor, es una persona que te hace sentir siempre en casa.
**Egoitz Sánchez**

## KEPA ERRASTI
*Posdatarik gabeko gutuna*

Keparen pertsonaia, Mikel, egungo 43 urteko gizon nahiko obsesiboa dela esango nuke. Gauzak beti ordenatuta, objektu batzuekiko apego berezi batekin eta etengabe hitz egiten. Gertakari batengatik bost urte daramatza egoera berdinean, gizartearekin harreman handirik izan gabe eta horrek bere mundu propioa eraikitzera eraman du, lagun imaginario eta guzti. Orain, egoera aldatu egingo da eta beldur da, batez ere bere burua konfrontatu beharko duelako behingoz…
Keparen eskuzabaltasuna azpimarratuko nuke. Etxekoa zarela sentiarazten dizu hasieratik eta momentu ezerosoren bat suertatzen bada, horri umorea ateratzeko abilezia dauka. Berarekin beti dago umore momenturen bat entsegu zein emanaldietan eta sareetan topatutako txakurren inguruko bideo barregarriren bat. Keparekin lan egitea plazerra da.
**Nerea Ariznabarreta**

# IZENDATUAK
## Telebista



### ITZIAR ATIENZA
*Entrevías*

Cuando empezamos a trabajar, Itzi me dijo algo así como: "¡qué ganas de trabajar contigo!" y es que ella es así, generosidad en todo, buenrollismo, talento a raudales y esa verdad innata con sentido del humor, que tienen los y las buenas intérpretes.
En *Entrevías* casi no habíamos coincidido en rodaje, cuando el guionista nos propuso nuestra trama de amor. Y lo supe desde el primer momento: con ella va a ser fácil. Y ha sido así. Creo que ama y respeta profundamente este oficio y esto traspasa al rodaje. Y tiene el don de sacar una sonrisa a cualquier miembro del rodaje aún haciendo jornadas duras y largas. ¡Te queremos!
**María Molins**



### AITZIBER GARMENDIA
*Muertos S.L.*

Aitziber Garmendiak Oliviaren pertsonaia antzezten du *Muertos, S.L.* telesailean. Olivia, Torregrosa ehorztetxeko idazkari hipokondriako, urduri eta maitabera da. Baina ez hori bakarrik, Aitziberrek pertsonaia ahaztezin, barrez lehertzekoa eta originala eraiki du, besteoi lana errazten eta egunak alaitzen zizkigun bitartean. Txikitatik, Aitzik oholtza gainean duen magiaz gozatu dut, bere lanak miretsi eta haiengandik ikasiz. Eta ez naiz bakarra, uste dut belaunaldi oso baten erreferente bilakatu dela. Gure haurtzaroan, bere pertsonaiek, pelikula erromantikoetako neska polita izateaz haratago aktore izateko beste aukera asko zeudela erakutsi ziguten. Antzerkian eta pantailan, denontzako lekua dagoela, alegia. Eta, uste dut, ez dagoela hori baino opari politagorik. Beraz, eskerrik asko bihotzez.
**Lorea Intxausti**



### ITZIAR ITUÑO
*Detective Touré*

A Itziar le gusta decir que su personaje Txaro es, más bien, una Florentina Perez; una empresaria que es, a su vez, la primera persona que confía en Tourè, que cree que mi personaje pueda llevar un caso detectivesco. Mi madrina en la ficción. Mi madrina durante la grabación.
Sería perfecto que todas las compañeras y compañeros de profesión fueran como ella porque es una persona que se entrega, respeta… Cuando trabajaba con ella me hacía sentir tan cómodo… ¡Parecía que nos conocíamos de toda la vida! Y da igual lo reconocida que sea… De hecho, al principio yo iba con pies de plomo, con mucho respeto, porque respeto la profesión y el reparto era ya de talentos reconocidos que yo ya había visto en la pantalla… Yo me decía: "¿Qué me estás contando? Estoy con esta gente aquí y ¡me están dando todo!" Y ahí estaba Itziar… desde el primer día que nos conocimos, conectando conmigo incluso a nivel espiritual. Ja ja ja. Ojalá se lleve este premio. Eskerrik asko.
**Malcolm Treviño-Sitté**







## JOSEAN BENGOETXEA
*Balenciaga*

Josean Bengoetxea, Nicolás Bizkarrondo, Virgilia Menizabalaren senarra da, nire senarra *Balenciaga*n. Nicolas eta biok, *Balenciaga*-ren lagun onenak gara, gauzak aldatuko dira gero, baina lagunak gara, familia bezala. Bizkarrondo oso gizon indartsua eta ausarta da. Ez daki asko modaren munduari buruz, baina negozioei buruz asko daki.

Joseanen ondoan lan egitea gauza ezin hobea da beti. Beti laguntzeko prest, giro ona sortzeko, abesteko! Dantzatzeko! Ya te dije… Joseanek lana oso ondo prestatzen du. Horrek ematen dio bere lanari, Bizkarrondori, egi haundia, eta sankontasuna. Elkarrizketa ederrak euki genituen geure pertsonaiei buruz… eta barre asko asko bota genituen. berarekin lasai eta seguru sentitu naiz beti. Berarekin lan egin dudan bakoitzean bere emaztea izan naiz. Josean, zu beti nire senarra izaten jarraitzea da nire asmoa, ya te dije… ea lortzen dugun, bidean gaude… Bengoetxea, ni zurekin beti, edonon, hori bai, beti nire senarra… ya te dije!

**Cecilia Solaguren**

## KOLDO OLABARRI
*Bellas Artes*

Koldo interpreta a Leo Urriola, el comisario del MIDAM (Museo Iberoamericano de Arte Moderno) en la serie *Bellas Artes*. Comparte con su personaje la elegancia, el buen gusto, unas formas exquisitas y el compromiso responsable hacia su trabajo. La elegancia de Koldo está presente en el trato con sus compañeros, su buen gusto es capaz de transformar y lograr, toma a toma, el umbral necesario de una secuencia. Sus formas exquisitas habitan cada rincón del set desde la modestia, y su compromiso responsable es el resultado de un trabajo previo, serio y constante, que se ajusta y rubrica el día de rodaje. Koldo es la persona que todos queremos cuando hacemos ficción, el talento que nos acompaña en nuestra vida real y también viceversa.

**Miguel Garcés**

## GORKA OTXOA
*Machos alfa*

No habíamos trabajado juntos. Sólo teníamos amigos en común. Así que cuando me dijeron que estaba en el reparto me alegré. Es euskaldun por todos los poros de su piel. Y como buen euskaldun puede parecer más tímido o metido para dentro. Pero es, como buen euskaldun, un sol. Me fascinó desde el primer día la manera en la que une los textos, los hace suyos, sólo Gorka puede decir algunos textos así como lo hace él, llevándote de una frase a otra y en mitad del camino te ha mostrado tres emociones diferentes. Nadie te escucha como Gorka. Siempre con el compañero. Siempre dispuesto a sorprenderte. Pero sobre todas las cosas anteriores es un amigo. En uno de mis peores momentos personales y a riesgo de perder un vuelo que tenía, allí se presentó para darme un abrazo. Qué os voy a decir de Gorka. Que le quiero, que estoy feliz de que sea mi amigo y que se merece todo lo bueno de la vida. Premios, películas, Oscars… Todo.

**Raúl Tejón**

# IZENDATUAK
## Zinema







### EDURNE AZKARATE
*Irati*

Zorroztasuna, kuriositatea eta arriskatzeko konpromezua. Hiru ardatz eder eta sendo dira Edurnek bere baitan dituenak. Beste asko ditu gorderik, ikusezin, baina ateratzeko prest, non ezkutatzen dituen jakitea ezinezkoa den ezpatak. Agian horregatik ezin dut bera baino inor hoberik imajinatu Iratiren pertsonaia hezur-mamitzeko. Bere begiradan, keinuetan, arnasean, ikus daiteke mundu oso bat agerrarazteko desio bat, oso ondo neurtua dena, gutxika emana batzuetan eta su bola baten itxuran bestetan. Beti eskuzabal, istorioaren mesedetan, behar baino leku gehiago hartzeko grinarik gabe, ia ikusezin; gibelean dituen ezpata distiratsu horiek bezala: zorrotz, kurioso eta arriskatzeko prest.
**Eneko Sagardoy**

### ANE GABARAIN
*20.000 especies de abejas*

El personaje de Ane es la hermana de la abuela de Aitor. A Aitor le ayuda a poder decir a los demás cómo se siente, quién es. Hacen muchas cosas juntas, le lleva a ver a las abejas… Es muy buena, es muy natural, las cosas las dice como son. Y, bueno, Ane es una de las mejores actrices con las que he trabajado nunca. Es super trabajadora, es majisima, tan buena, tan graciosa… es… ¡vamos, la bomba! Super cabezona. Me acuerdo que cuando fui al aeropuerto con mis padres para ir a la Berlinale, Ane llevaba una cara… se encontraba fatal. La tuvieron que poner en una silla de ruedas y es que no podía volar en esas condiciones. Pero ella insistía porque decía: “No puedo faltar al viaje de mi vida”. Y al final cogió el avión y fue a la gala, pero el resto de los días no pudo hacer nada. Es que es muy trabajadora y rodando también. Ella es como que se mentaliza y se dice: lo hago, lo hago, lo hago… y lo hace. ¡Ojalá se lleve el premio!
**Sofia Otero**

### PATRICIA LÓPEZ ARNAIZ
*20.000 especies de abejas*

Patricia y yo hemos sido madre e hija en *20.000 especies de abejas*. Trabajar con ella ha sido un gustazo personal y profesional. Su actitud concentrada en el trabajo, su escucha y la energía positiva son contagiosas. Todo eso ayuda mucho.
Antes de coincidir en este proyecto ya la admiraba por su naturalidad, su entrega en la emoción, y esa habilidad para conseguir que los personajes cobren vida auténtica.
En fin, Patricia me gustas mucho, ¡pero que mucho! Especialmente por tu capacidad para transmitir emociones reales y conectar con el público.
Así que muchas gracias, compañera, por el regalo de este mano a mano que disfruté contigo.
**Itziar Lazkano**



## KEPA ERRASTI
*Irati*

Kepa Errastik Iratin filmeko antagonista jokatzen du, istorioak behar duen aurkari doilor eta krudela. Ofizio handiko aktorea da Kepa eta ederra izan zen, prestaketa garaian, filma bilakatuko zenaren zantzuak bere bitartez ikusten hastea. Testua oso ongi lantzen zuela gogoratzen dut, euskarari eskaini behar zitzaion lanketa horretan ere oso bizia zen, proiektuaren alde lan egiten duen aktorea dela esango nuke. Entseguetan zein grabaketan, Keparen egiteko moduak, lana "erreza" izatearen irudipena ematen du, eta hori, taula asko zapaldu dituenaren seinale da. Horretaz gain, Kepa bonba hutsa da grabaketako atsedenaldi eta lanegun amaieretan. Ez dut sekula ahaztuko zenbat barre egin dudan berarekin, *Irati*k oparitu didan laguna da.

**Edurne Azkarate**



## MARTXELO RUBIO
*20.000 especies de abejas*

A Martxelo le sigo desde muy jovencito pero nunca habíamos coincidido trabajando hasta estas *20.000 especies de abejas*. Él es mi yerno en la película, ¡un gran yerno! No tuve muchas secuencias con él y además varias se eliminaron, pero destacaría su compañerismo y humildad en el equipo. Siempre te regala sonrisas. Tiene un gran sentido del humor. Es un compañero excepcional. Es discreto... ¡Ojo! Y elegante. Eso es. Martxelo es un tío elegante en todos los sentidos.

**Itziar Lazkano**



## ENEKO SAGARDOY
*Irati*

Eneko Sagardoy Euskal herriko aktore handienetarikoa da. Pertsonaietan eraldatzeko eta sinesgarritasuna emateko kapazidadea izugarria dauka. Kamaleoi bat: Infernuko demoniotik, erromako auriga batetara. Bai zinean bai antzerkian. Niretzako lagun mina, lankide paregabea, eta jada familia ere.

*Irati*rentzako Enekoren papera idatzi nuenean, dudarik gabe beragan pentsatu nuen zuzenenan. *Irati*n egin zuen lana ikaragarria da. Fisikoki, entrenamendu titanikoa, dieta zorrotza, esgrima, ekitazioa, mendian borrokak, kobazuloak, ur izoztuak… Eta batik bat emozionalki, bere lanaren ederrena, pertsonaiak lortu zuen sakontasu emozionala izan zen, Erdi Aroko ezpataz konkistatzen duen heroi maskulino klasiko hegemonikotik, bihotzeko gerlari ausart teluriko eta sentibera batetara egiten zuen bidaia. Maitasunetik eta galeraren baloreagatik bere patua betetzen duen heroi erraoldoi bat. Enekok saria merezi du. Pertsonai honekin Euskal zinemari eta euskal kulturari egin dion ekarpena ez bait du preziorik. Aintza Eneko Sagardoy!

**Paul Urkijo**

Egindakoak

# TÉCNICA MEISNER

## CON JAVIER GALITÓ-CAVA Y NEUS SAÑÉ

Aldez aurretik eskerrak eman nahi dizkiet EABri, Meisnerreko irakasle handiei Neus eta Javier, eta aktore talde hain politari, haiekin bizi izan baitut arte eszenikoen munduan esperientzia zoragarri eta bizi hau.
Zorteduna sentitzen naiz jasotako guztiagatik eta Javierren hitzak hartuz: “eragiten utzi didalako”. A ze opari handia!
Meisner-maniako bihurtu naizela uste dut, agian norbaitek zerbait esaten badit, bere esaldia errepikatzera joz. Autoezagutzarako tresna indartsua da aktorearentzat, agertokian magia azaleratzen uzten duena, entzumenetik, bulkadetatik... azken finean... benetan garenetik.
Eszenan epaitu gabe, imajina daitekeen guztia gerta dadin baimena emanez, “desde lo menos fácil” gure benetako beharretik erortzen utziz, logika oro zabalduz eta gure bulkadei gidatuz, irudimenez eta entzutez mozkortuz.
Irakasle jakintsu eta estoiko honen eskutik, sentipenen zurrunbilo bizi batek eraman du Marijo hau eszenan gozatzera, haserrera, nire erresistentziei, autosabotajeari, nire argi eta itzalei aurrez aurre begiratzera... azken batean, beste toki batetik eszenaratzera.
Lehenengo egunetan, osteopatara joatea bezelakoa izan leike, ohatilan etzan eta bere eskuen sega nabaritzen duzu, erraiak bihurrituz, zure hezurren kirrinka entzuten duzun bitartean, eta burutik pasatzen zaizu doitzaileari ostikada bat ematea... joder! Horrek min ematen dizu! Baina kalera irtetean, arin sentitzen zara eta, zure zurruntasun guztiak desagertu egin direla jabetzen zara, eta askatu egiten zara sormen-mailan aurrera egiten uzten ez zizuten baliabide zozoz betetako motxila astun eta zaharretik. Eta orain testuarekin, lagunarekin, eta batez ere honek ematen dizun askatasunarekin zabiltza.
Azkenean hurrengo pantailara igarotzea lortzen duzunean, gauzak bira erradikala ematen du... agertokian maitasuna egitea bezala da, eman eta jaso konstante batean. Galderaz beteta, bizitzaz, non bestea eta ni bakarrik gauden, benetan erreala den une bakarrean... oraina, jolasean eta geure mugak astinduz.
Ezaugarri horiek, guztiek, tresna oso interesgarriak eskaini dizkidate eszenan, “leku ez hain erraz batetik”. Nire gosea piztu dute antzezten jarraitzeko. Konturatu naiz gibel gordin bat jatea ere ezin dela “menos fácil” izan... eta gose naiz oraindik...
Ingurura begiratzen dut eta arte usaina dut izkina guztietan, Meisner pertsona guztietan ikusten dut eta arteak ulermena errazten digu. Orain bai, agertokia nire etxea da.
Eta zer esan Neus jainkosari buruz... Katarsi bat jasan dut bere gorputz, mugimendu eta ahots motetan... Beste gorputzen kontaktutik, entzumenetik, mugimendutik, txikitik handira hitz egiten digun guztia... orain badakit gorputzak agintzen duela... gorputzak adimena isiltzen duelako eta bihotzari entzuten diolako. Eta gehiago nahi dut, jolasten jarraitu nahi dut, sortzen, ikasten, goseak amorratzen nagoelako...
Matrix edo Meisner. Pirula gorria edo urdina...
Zuk aukeratzen duzula!



**Marijo Benitez**



El curso sobre Técnica Meisner impartido por Javier Galitó-Cava y Neus Suñé ha sido de una calidad tan grande, que mis palabras no alcanzarán a explicar todo lo vivido y aprendido. Y es que es mucho, muchísimo…

Este taller nos ha dado herramientas para escuchar profundamente, habitar el momento presente y la imaginación, y tener también un cuerpo habitado que vive ese momento. Sin olvidar que todo lo que hacemos "depende de la otra persona". Así hemos salido del automatismo, conectando con nuestra necesidad de reaccionar, y con nuestros impulsos. Desde el instinto, que no piensa, que reacciona.

Es una técnica maravillosa, que hace que todos los momentos que ocurran sean verdaderos, y que la interpretación esté viva. Y subrayar la gran importancia de la imaginación. Es nuestra herramienta principal, y debe trabajarse cada día. Actores y actrices, ¡vivamos de verdad bajo circunstancias imaginarias!

¡Gracias a todas las compañeras y compañeros del curso por la gran generosidad y entrega! ¡Gracias a EAB por ofrecer formación tan necesaria y de tantísima calidad! ¡Y máximo agradecimiento a Javier y Neus por todo lo que nos han enseñado con tanta pasión y amor! Esta técnica y el taller nos han calado muy hondo, así que ojalá que les volvamos a tener por aquí.



**Laura Iturregi**




EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
Gipuzkoako Foru Aldundiak Diputación Foral de Gipuzkoa
Bizkaia foru aldundia diputación foral
Bilbao
aisge FUNDACIÓN
bilbo eszena